

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

51 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Eskozia eta Euskal Herria

**Autodeterminazio eskubidea bai!
Sozialismoa ere bai!**

2. Editoriala: Eskozia eta Euskal Herria, autodeterminazio eskubidea bai, sozialismoa ere bai
6. Langabeziaren aurkako borroka eta sindikatuen borroka batasuna
8. Ukraina: Gora Donets eta Luhanskeko langileen borroka • 10. Katalunia: Pujol kasua,
klase arteko borroka eta arazo nazionala • 12. Hezkuntza publiko eta euskalduna
16. Gora Palestinaren aldeko borroka!

Eskozia eta Euskal Herria

Autodeterminazio eskubidea bai, sozialismoa ere bai

Burgesia ingelesa eta europarra larri ibili dira Eskoziar Estatu sortzeko arriskuarekin. Urduritasun hau kanpainako azken astean agerian geratu zen, burtsaren eta libra esterlinaren kotizazioaren erorketekin, baina, batik bat, Alderdi Kontserbadoreko, Liberaleko eta Laboristako arduradun politikoen eta Londresko botere ekonomikoaren eraso beldurgarriarekin. Xantaiain oinarritutako kanpaina izan zen: enpresen deslokalizazioa, kapitalen ihesa, Eskoziar Estatu nazioarteko erakunde guztietatik kanporatzea eta gizarte eskoziarraren pobretze orokorra erabili zituzten. Beste aldetik, Eskoziako kaleetako eta sare sozialetako irakinaldi politikoa indartsua zen, Eskozia estatu bihurtzearen aldeko botoaren joera goranzkoa zela ikusita. Azkenean, irailaren 18ko erreferendumean, %85eko parte hartze historikoarekin, Erresuma Batuari elkartuta jarraitzearen aldekoek irabazi zuten 2.001.926 botorekin, banatzearen alde emandako 1.617.989 botoak garaituz (%55,3 ezezkoak, %44,7 baiezkoak).

Erresuma Batuan jarraitzearen aldekoek ez dute irabazi modu garbi, demokratiko eta eredugarrian Europa osoan sinetsarazi nahi izan den bezala. PPrentz gobernuaren jarrera ezberdina izan arren, David Cameron Lehen Ministroak erreferenduma deitzearen arrazoiak kalkuluen arabera BAlezkoak irabazteko zuen aukerarik eza zen. Beretzat eta klase dominatzaile ingelesarentzat hau zen modu onena Eskoziako nazionalismoaren gorakada mozteko. Kontsulta ospatu baino aste batzuk lehenago, inkestek iragartzen zuten BAlezkoaren gorakadaren ondorioz EZezkoaren aldeko kanpaina basatia jarri zuten martxan agintari laboristen, Europako Batasunaren, bankaren eta kapital handiaren babes osoarekin.

Azkeneko segundora arte aldarrikatu zuten BAlezkoak irabazi ez-

kero, eskoziarrek mota guztietako hondamendiak izango zituzketela. Adibidez, Royal Bank of Scotland (RBS), Lloyds Bank eta sektore finantzario osoak (hauen negozioa Eskoziako BPG baino 12 bider handiago da) beren bulego nagusiak Ingalaterrara eramango zituztela mehatxatu zuten. Autoritate ekonomiko britainiarrek 2007ko krisian bizitako izu finantzarioak sortutako egoerarekin konparatzen zuten egoera, non adibidez Northern Rockeko ofizinetan bere bezeroak ilara luzeak egiten egon ziren beren aurrezkiak ateratzeko. Hondamendi honi aurre egiteko planak publikatzerare iritsi ziren.

Mark Carney Ingalaterrako Bankuko gobernadoreak eta George Osborne ogasun ministroak uko egin zioten Australiako G20an parte hartzeari erreferendumaren emaitzek

eragin zezaketen “iskanbilari aurre egiteko”. Karel De Gucht komisario belgikarrak adierazi zuen BAlezkoak irabazi ezker “inperio sobietarraren amaierak eragindako lurrikara politikoaren antzekoa” sortuko zela eta “herrien autodeterminazioan oinarritutako Europa gobernaezina” dela. Nazioarteko Diru Funtsa eta AEBetako estatu departamentua ere Cameronen gobernuaren alde jarri ziren, arrazoi geoestrategikoak eta mendebaldeko bloke inperialistaren batasunaren beharra argudiatuz.

Zalantzarik gabe, burgesia ingelesak eta honi babesa eman dioten ordezkari politikoez estortsioaren, katastrofismoaren eta mehatxuaren kanpaina erabili dute. Hala ere, toki askotan gertatzen ari den bezala, beldurra zapaltzailearen aldera pasatzen eta Cameronen gobernu eskoziarrari eskumen gehiago emango zizkiola adierazi behar izan zuen; orain arte behin eta berriro ukatu dituzten eskumenak hain zuzen.

BOTEREAREN DIKTADURAREN ETA MURRIZKETEN AURKAKO ERREBOLTA

Liberalen, laboristen eta Gordon Brown lehen ministro ohiaren babesarekin, Cameronen eskumenen itzulerara azkar eta zabalena agindu zizkion parlamentu eskoziarrari BAlezkoaren aldeko kanpaina geratzeko. Makilaren eta azenarioaren konbinazioarekin, inkestak norabidez aldatzen joan ziren. Burtsa zerbait errekuperatzen hasi zen eta libreraren balioa handitu egin zen hauteskunde jardunaldian bertan. Kontaketa amaitzean, EZezkoak 10 puntuko abantaila ateratzen zion BAlezkoari.

Aldea handia dela badirudi ere, Cameronen erreferenduma deitzea



erabaki zuenean EZekoak 20 puntuko abantaila ateratzen zuen inkestetan. Bozketa baino aste bat lehenago independentziaren aldekoek garaipena lor zezakeela erakusten zuten inkestak ere atera ziren. Galdeketa parte hartzea %84,6ko errekor historikora iritsi zen. Eskoziako hiri handiena den Glasgoven eta Dundeen izan ziren abstentzioaren datu handienak, %75 eta %78 hurrenez hurren; baina langileen eta laborismoaren zonalde historiko izan diren hauetan BAIEzkoak irabazi zuen, North Lanarkshire eta West Dunbartonshire bezala. Independentziaren aldeko errekorra Dundeen eman zen, aldeko %57,3 bozkekin.

Independentziaren aldeko botoak gailendu ziren zonalde hauek dira enpresa itxiera eta kaleratze gehienak sufritu dituztenak. Historikoki laborismoaren feudoak izan direnek BAIEzkoaren aldeko bozka eman dute. Honek langile klase eskoziarrek murrizketa politiken aurka duten haserrea islatzen du, bate-tik, eta agintari laboristak Cameronen aurrean belaunikatzearen aurka, bestetik. Langile eskoziar askoren BAIEzko botoa Londresko gobernuaren aurkako botoa izan da, hau baita murrizketen eta beren bizi baldintzek okerrera egitearen arduraduna.

Esanguratsua izan da EZekoaren aldeko bozkak hain datu onak lortzea Alderdi Nazionalista Eskoziarra (SNP) nagusi den eskualdeetan, Aberdeen adibidez. Hemen,

parlamentu britainiarrean dauden diputatu guztiak laboristak eta SNPkoak dira. Ipar Itsasoko petrolioak eta gasak sortutako enplegutik eta errentatik etekina ateratzen duen hiria da Aberdeen. EZekoak botoen %58,61 eskuratu zuen eta BAIEzkoak %41,39. Aberdeenshiren, bertan SNPk irabazten du, EZekoak %60,4 lortu zuen %39,6ren aurrean. Bestetik, kontserbadoreen eta liberal-demokraten feudoetan EZekoak lortu du garaipena, Orkney eta Shetland irletan eta Edinburgo hiriburuan; hemen EZekoak %61eko emaitza izan du.

Orokorrean, esan daiteke burgesiak, Cityak eta banka handiak EZekoaren aldeko hautua egin zu-

tela; eta, bitartean, agintari laboristei ere aurre eginez, langile klasearen sektore asko BAIEzkoaren alde posizionatu zirela. Aldi berean, burgesia txikiak bere botoak bitan banatu zituen. Sektore bat independentziaren mehatxu eta ondorioekin beldurtu zen, eta besteak Eskozia independente batekin hobera egitearen itzaropena zuen.

Gauza bat, behintzat, argi dago. EZekoak irabazi arren, Erresuma Batuko burgesia ahulduago, zati-tuago eta kanpaina honetan sartzea arrazoitzen zuen helburuak lortu gabe atera da. Erresuma Batuan eta Europa osoan askapen nazionalaren aldeko borroka hauspotu du erreferendumak eta, horren ondorioz, irlandarrek eta galestarrek ere beren etorkizuna erabakitzeko gaitasun gehiago eskatzen dute. Emaitzek ondo azalera dute, eta hau oinarritzkoa da, haserre sakona dagoela langile eskoziarren eta bi irletako gainontzeko langileengan, langile ingelesak barne. Cameronen politikaren ondorioz, masa borrokarako baldintzak prestatzen ari dira Erresuma Batu osoan.

KONTSERBADOREEN ETA LABORISTEN KRISIA

Cameron ahulduta atera da prozesu honetatik Erresuma Batua zatiketa- ren amildegira gehiegi gerturatzea-





gatik. Alderdi Kontserbadoreko sektore zabal batek erreferendumean autonomiari buruzko hirugarren aukera bat ez jartzea kritikatzeko dio; baina, aldi berean, azken orduan egindako kontzesioengatik zalantza eta kritika gehiago sortu dira. Boris Jonson Londresko alkateak, eta etorkizunean Cameronen eserlekua hartzeko hautagaia izan daitekeenak, kontzesio horiek arriskutsuegiak direla adierazi du. Orain dela gutxira arte Ingurumen Ministroa izan den Owen Patersonek ere azaldu du berehala Parlamentua bildu beharko litzatekeela erreferendumen ondorioez eztabaidatzeko, eta honekin batera EZEzkoaren aldeko kanpaina bukaera “kaotikoa” kritikatu du: “Onartezina da azken unean lehen ministro laborista ohiak Eskoziaren eskumenak ugari-tuko dituen kontzesio burugabeak agintzea, eta honek Erresuma Batuko hiru alderdi nagusien babesa izatea Parlamentuaren agindurik gabe”.

Laborismoari dagokionez, erreferendumak agerian utzi du zuzendaritzaren eta honen oinarri sozialaren artean dagoen amildegia. BAIEzkoa bozkatzean edo abstentziora jotzean bizkarra eman diote agintari laboristek EZEzkoaren alde egindako kanpainari. Oinarri laboristaren mezua argi geratu da: ez dute beren agintariak murrizketekin, pribatizazioarekin eta langile klasearen pobretzearekin amaituko duten konfiantzarik. Baina hala ere, Ed Miliband Alderdi Laborista britainiarre-

ko buruak eta gaur egungo gainontzeko agintariak ez dute asmorik mezu horri arreta jartzeko; eta honek, zalantzarik gabe, ondorio sakonak izango ditu. Alderdi Laboristak zaplazteko galanta jaso du eta datozen hauteskundeetan isla daiteke PASOke Grezian, PSFk Estatu frantziarrean eta PSOEk Estatu espainiarrean izandako antzeko krisia eta desgastea eraginez. Erreta dau den Gordon Brown bezalako agintariak berpizten dituzten saiakera desesperatuak porrotera kondentuta daude.

KAPITALISMOA ETA ESKOZIA INDEPENDENTEA

Eskoziar estatua sortzearen aldeko botoa, SNPz gain, laborismoaren ezkerretara dauden erakundeek ere bultzatu dute, aldaketa sozialaren eta sozialismoaren aldeko borrokaren motortzat hartuta. Hala ere, Eskoziar Estatua sortzea sozialismo-ranzko pauso segurua dela esatea errealitatetik urrun geratzen da. Noski, posizio honek ezkerreko independentisten eta SNP alderdi nazionalista eskuindarraren arteko talka eragin du. Ezkerreko erakunde hauen ordezkari gehienek edozeren gaintik erabilitako formula Eskoziar Estatuaren sorrera bermatzea izan da. Horregatik, BAIEzkoaren aldeko kanpaina egiteaz gain, klaseko posizio internazionalista alde batera utzi eta SNPren atzean kokatu dira; eta honek burges eskoziar nazionalistei bakarrik egin die mese-

de. Ez da inolako alternatiba Erresuma Batu kapitalistaren eta Eskoziak kapitalistaren artean aukeratzea, erreginarekin, NATOrekin, murrizketekin, Ingalaterrako Bankuarekin... Gainera, elementu honek bere eragina izan zuen eta Glasgoweko eta beste hirietako ezkerreko boto-emale asko etxean geratu zen bozkatu gabe.

Marxista eta internazionalista bezala, langile klasearen askatasunaren alde eta mota guztietako zapalkuntzen aurka borrokatzen dugu, zapalkuntza nazionala barne. Nazioen eta herri zapalduen eskubide demokratiko nazionalen aldeko borroka, autodeterminazio eskubidea eta independentzia barne, sozialismoaren aldeko borrokari lotuta dago, hori baita zapalkuntza hau eragiten duen sistema kapitalistari amaiera emateko modu bakarra. Eta hau ezin da lortu nazio zapalduetako burgesiaren eskutik, langileen interesekin zerikusirik ez duten helburuak baitituzte. Horregatik, marxistak ez gaude edonolako estatu eskoziar bat sortzearen alde; are gutxiago estatu honen helburuak sistema kapitalistarekin eta zapalkuntza inperialistarekin amaitzea ez badira.

Zalantzarik gabe, Eskoziako langile, gazte eta zapaldu askok eta askok BAIEzkoa bozkatu dute oligarkia finantzario ingelesa, toryak, hauen murrizketak eta ongizatearen aurkako eraso basatiak gogor zigortuz. Benetako askatasunarekin eta berdintasunarekin, Eskoziak baldintza guztiak izango lituzke herrialde bezala bideragarria izateko, baina burges eta erreformista batzuek aurkezten duten egoera ideal hori ez da existitzen. Gaur egun, lau haizetara ala itzalpean, ikaragarriko gerra dago merkatuak, bide komertzialak, influentzia eremuak... kontrolatzeko helburuarekin. Sistema kapitalistaren krisiak inperialisten arteko kontraesanak handitzea eragin du. Gero eta maiztasun gehiagoz, gatazka armatu inperialistak sortzen dira. Libian, Iraken, Sirian, Afganistanen, Hego Sudanen, Ukrainian... gerrak ditugu potentzia inperialista ezberdinen artean lehengaiak, energia iturriak, merkatuak



eta eremu geopolitiko estrategikoak eskuratzeko. Potentzia handi hauen zapalkuntzaren eskenatokian nazio txikienak bizirik irautera kondentatuta daude.

Ipar Itsasoko petrolio eta gasa oso garrantzitsuak izan dira Erresuma Batuentzat 1964an honen ustiapinarekin hasi zirenetik, bai maila ekonomikoan eta baita maila politikoan ere. 2012an Erresuma Batuko osoko petrolio eskaeraren %67a eta gas eskaeraren %53a ase zituen, zuzeneko eta zeharkako 450.000 lanpostu sortu zituen eta ogasun britainiarrari 8.000 milioi inguru eman zizkion, Sozietate Zergarekin bildu zenaren %15a. Hau gutxi ez eta merkantzia britainiarren esportazioa handitzen du 8.500 milioi euroko baliorekin. Ondorioz, Erresuma Batuen ordainketen balantzara 47.000 milioi euro gehitzen ditu. Erresuma Batuek ez du botere ikaragarri honetako euro bakar bat ere galdu nahiko eta prest egongo da mota guztietako borroka antolatzeke.

SNP burgesia eskoziarraren alderdia da; eta honek aurkeztutako liburu zuriak erakusten zuen kapitalismopeko Eskozia zuela helburu, Erregina izango zela estatu eskoziar berriko estatuburua, libra mantenduko zela, Eskozia NATO n sartuko zela eta Ingalaterrako Bankuak Eskoziako egonkortasun finantzarioaren arduraduna izaten jarraituko zuela. Baldintza hauetako estatu eskoziarrak klase dominatzaile britainiarraren interesen menpe jarraituko zukeen elite finantzario eta en-

presarialaren bitartez, orain Hego Irlandan gertatzen den bezala.

Horrela, beraz, benetako independentziarik ere izango ez zukeen estatu eskoziarrak ez zukeen amaituko Cityaren eta multinazionalen boterearekin. Helburu hau Eskoziako, Galeseko, Irlandako, Ingalaterrako eta Europako langile klasearen borroka bateratuarekin bakarrik lor daiteke, sozialismoaren aldeko borrokaekin.

ASKAPEN NAZIONALAREN ETA SOZIALISMOAREN ALDEKO BORROKA

Erresuma Batu osoan eta Eskozian, masen artean orokorrean eta langile klasean zehazki, aktibismoak eta eztabaida politikoak gorakada izan dute erreferendum honen ondorioz: baiezkoaren eta ezezkoaren aldeko argudioak, askatasun nazionalari eta borroka sozialari buruzko eztabaida... Emaitez hasiera batean sortutako etsipenaren ondoren, eztabaida politikoaren gorakada hori ez da amaituko erreferendumaren ondoren. Aitzitik, esan genezake politizazio hau hasi besterik ez dela egin. Europa osoa geldialdi ekonomiko berri batean sartu da. Erresuma Batua azken urtean batz bestekoa baino gehiago hazi da, baina Eskozian ikusi dugun bezala, hazkuntza hau zapalkuntzaren, desberdintasunen eta pobrezia handitzearen oinarrituta dago.

Erreferendumaren ondoren, banku handiek eta multinazionalak

“iraganeko lasaitasunera” itzuli nahiko dute, baina gauzak dagoeneko ez dira izango erreferendumaren aurreko garaikoak bezalakoak, ez Eskozian eta ezta Europar ere. Burgesiak bere hausnarketa egingo du prozesu honek eragindako lurrikara politikoaz eta langile klaseak ere bai. Leninek auzi nazionalari egin zion ekarpena oinarritzat izan zen iraultza errusiarraren garaipenerako eta, berak esan zuen moduan, nazio batek banatzeko duen eskubidea gauzatzearen ondorioz ere lehertu daitezke iraultzak.

Burgesiak muga nazionalen gainetik dagoen klase sozial batek bezala funtzionatzen du, Eskoziako gaiarekin beren indarrak elkartu dituzte, legeria europarra aldatuko dute nazio txikietako autodeterminazio eskubidearen erabilera are zailagoa bihurtzeko. Esperantza bakarria langile mugimenduari dago. Langile klasea ezin jar daiteke, inolaz ere, burgesia edo burgesia txiki nazionalistaren atzean une erabakigarrietan. Historiak behin eta berriro erakutsi duen moduan, atzera egiten dute, zalantzan sartzen dira eta askatasunaren aldeko mugimendua traizionatzen dute.

Aldizka kapitalismoaren garapena oztopatuz krisiak eta langabezia eragiten dituzten bi kontraesan handiak ekoizteko baliabideen jabe pribatua eta estatu burges nazionalak dira. Gaur egungo estatu burges nazionalak feudalismo garaiko aduanen antzeko papera jokatzen dute: ekoizteko baliabideen eta ongizatearen garapena ezinezko bihurtzen dute. Eskozian, Erresuma Batuan eta Europa osoan eginkizuna kapitalismoaren aurkako borroka da, arrazionalki planifikatutako ekonomia aldeko borroka, sozialismoaren aldeko borroka. Langile mugimenduari eginkizuna, Eskozian, Katalunian, Euskal Herrian eta Europa osoan, ez da estatu burges nazional berriak sortzea, mundu mailan gizarte sozialista bat eraikitzea baizik; herri aske osatutako mundua eraikitzea. Eskozian ikusi dugun bezala, langile klaseak iraultza sozialista internazionalaren benderapean sartuko du zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka.

Langabeziaren aurkako borroka eta sindikatuen borroka batasuna

EAEko abuztuko langabeziaren zifrek argi utzi dute Gobernu espainiarra eta Eusko Jaurlaritzza zabaltzen ari diren ekonomiaren aurreikuspen onaren faltsutasuna. Langabetu kopurua hazi egin zen, 1.795 gehiago daude langabezian eta, dagoeneko, 169.188ra iritsi da. Nafarroan berriz azken urtean langabezia %1,32 hazi da eta 41.407 langabetu ditu. Abuztuan bildutako beste datu bat eta sortutako lanpostu gutxi horien prekaritatea erakusten diguna behin behineko kontratuen gorakada izan da. Abuztuan sinatu ziren 50.936 kontratuetatik 47.887 behin behinekoak izan ziren.

J.L. CARIÑANOS,
Gasteizko Langabetuen
Batzarra

Sektoreka, langabezia gehien hazi dena zerbitzuena izan da, 1.134 langabetu gehiagorekin; industriarenak jarraitzen dio 585ekin eta, ondoren, eraikuntzarenak 219ekin. Datu hauek ere ezerezean uzten dituzte euskal erakundeek errekupeazio ekonomikorako zerbitzuen sektorean eta autoenpleguan dituzten esperantzak. Argudio horiek indartzeko Bilbon izandako Munduko Saskibaloitza Txapelketa-partidu batzuetan eta Donostiara iritsi zen turistaz beteriko itsasontzian oinarritzen dira, ekonomiarentzat bultzada garrantzitsua izan direla baieztatuz. Argudio hauekin jende guztiak ikusten duen errealitatea ezkutu nahi dute: euskal ekonomiaren benetako motorra den industriari krisi sakonean jarraitzen duela. Euskal industriaren %40 esportazioen menpe dago, batez ere, Estatu frantziarraren eta Alemaniaren menpe. Alemaniaren ekonomia %0,2 erori zen urteko biga-

ren hiruhilekoan; frantziar ekonomia, berriz, maldan behera doa. Europaren errekupeazio ekonomikorako aurreikuspenak oso eskasak dira. Nazioarteko analisten aurreikuspenen arabera, arriskua dago mundu mailako ekonomia beste atzeraldi ekonomikoan sartzeko. Japoniak, ekonomia estimulatuzeko hartu dituen neurri guztiak hartuta ere, 20 urte daramatza krisian eta hau izan daiteke Europari gerta dakiokiena.

Aurreikuspen hauekin, euskal patronalak aitzakia ezin hobe dauka langile klasearen aurkako erasoak areagotzeko. Horretarako Gobernu espainiarraren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza paregabea dauka, batez ere, lan erreformari esker. Hala ere, euskal patronalarentzat gutxiegi da. Kontratazioetan malgutasun gehiago eta kaleratzeak oraindik eta gehiago merkatzea eskatzen dute. Hauek dira EAEn lan erreforma aplikatuko ez zela esaten zutenak. Bizkaiko patronalari denbora falta izan zaio metaleko hitzarmenaren ultraaktibitatearen aldeko Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren epaiari errekurtsioa aurkezteko. Berdina gertatzen da Gipuzkoakoarekin, 2011tik blokeaturik baitago.

ZUMARRAGAKO ARCELOR MITTALEN KASUA

Patronalak egindako azken erasoetako bat abuztuaren bukaeran izan zen. Arcelor Mittal multinaziona-



lak Zumarragan daukan lantokia aldi baterako ixteko mehatxua egin zuen galera pilaketa omen zeukalako. Aldi baterako itxiera saihesteko langileei beraien lan baldintzen okertze nabarmena onartzeko eskatu zien. Gertaera hau multinazionalaren zuzendaritzak langileei egiten dien xantaia da, eta ez da lehena. Duela 9 hilabete langileek soldataren %12ko murrizketa eta malgutasun handiagoa onartu behar izan zuten. Eraso hau multinazionalak Europa mailan daraman fabrika itxiera plan handiago baten parte da. Estatu frantziarreen duela bi urte Florangen duen lantokia ixteko mehatxua egin zuen eta Gijonen bi labe garaietako bat geldi dago. Estatu frantziarreko kasuan Hollanden gobernuak akordio batera iritsi zen enpresarekin itxiera saihesteko, baina langileengan piztu zuen esperantza traizionatu zuen, enpresa nazionalizatuko zuela esan baitzuen lehenago. Zumarragako kasuan, azkenik, irailaren 4an akordio batera iritsi ziren enpresako zuzendaritza eta CCOO, ELA eta UGT sindikatuak. Akordioaren ondorioz, lanorduen malgutasuna handituko da. CCOO, ELA eta UGTk bosgarren erreleboa onartu dute eta baita seigarren bat ere behar izanez gero. LABek ez du akordio hau babestu eta obligazioak langileentzat bakarrik direla salatu du, baina ziurtatzen du beti egon dela bosgarren eta seigarren erreleboa onartzeko prest, baita malgutasun neurriak adosteko ere “beti ere ongi justifikatuak badaude eta enpresak langileekiko konpromisoak hartzen baditu”. Baina zertara konprometituko da enpresa zuzendaritza sindikalak langileei egiten dien xantaia guztiak onartzen baditu? Nola justifika daitezke langileen esplotazioa areagotuz enpresarien irabaziak handitzen dituzten neu-



rriak? Gogorarazi behar da Arcelor Mittal munduko altzairu fabrikatzailerik handiena dela eta urtean milaka milioi fakturatzen dituela. Bertako presidentea indiar magnate bat da, munduko gizon aberatsenetariko bat. Gizon hori iaz Bartzelonan egon zen bere ilobaren ezkontza ospatzen. Ospakizun horretarako hiriaren erdigune osoa itxi zen, baita hainbat eraikin publiko ere. Eta nola ez, zirku hau guztia antolatzen Generalitateak parte hartu zuen CiUko agintari guztiekin; ezin izan beste era batera. Negozioak egiteko denean burgesen artean ongi ulertzen dira diren tokikoak direla ere.

BEREIZITA IBILI BAINA BATERA KOLPATU ETSAI BERBERA

Agintari sindikalek gaitzik txikiaren bidea aukeratu beharrean, hasieratik erasoei aurre egingo balie, orain langileak erasora pasa eta lan baldintza eta soldata duinen alde borrokatzeko egoeran egongo liriteke. Baina horretarako beharrezkoa da urteetan mantendu duten desmobilitazio eta itun politika baztertzea. Beharrezkoa da, era berean, modu bateratuan osatutako eta gorantz joango den borroka egutegi bat antolatzea, fabrikatik hasi eta borrokan dauden beste enpresa eta kolektibo sozialetara zabalduz, gizartearen gehiengoak

parte hartu eta babestuko duen langile fronte indartsu bat lortu arte kapitalaren eraso guztiei aurre egiteko. Nola ez, mugimendu horrek langile guztiak dituzten errebindikazio garrantzitsuenez osaturiko programa bat eduki beharko luke.

Norabide horretan, Gasteizko Langabetuen Batzarra bidea erakusten ari da. Uztailaren 3an bi urte baino gehiago borrokan daramatzaten Laminaciones Arreguiko langileei babesa eskaintzeko manifestazioa antolatu zuten, ezkerreko erakunde eta kolektibo nagusiei parte hartzeko deia eginenez. Manifestazioa amaitu zenean aldarrikapen hauek defendatu ziren: lanorduak 35 ordotara murriztea soldata murrizketarik gabe, ordu estrak kentzea, 60 urterekin jubilatzea errelebo kontratuarekin, ETTak kentzea, 1.200 euroko langabezia laguntza langabezia amaitu arte eta beste hainbat errebindikazio. Mobilizazio honen antolaketan kolektibo bakoitzak bere pankarta eta kontsignak eraman zitzaizten eta beraien errebindikazioak azal zitzaizten planteatu zen, borroka batasunak ez duelako zertan kendu talde bakoitzaren nortasuna. Aitzitik, kolektibo bakoitzak bere programa defendatu behar du. Bereizita ibili baina batera kolpatu etsai berbera. Langile klaseak bere interesak ongien adierazi eta defendatzen dituen programaren alde borrokatuko du.

Ukraina: Gora Donets eta Luhanskeko langileen borroka

Uda honetan, Donetsk eta Luhanskeko Herri Errepubliketako Kieveko gobernu atzerakoi eta proinperialistaren bonbardaketa eta eraso militar gogorak jasan dituzte. NBEaren arabera, masakre honen ondorioz, 2.593 hildako izan dira, 6.000 zauritu baino gehiago, 260.000 barne desplazatu eta 800.000 pertsona baino gehiagok Errusiara ihes egin behar izan dute. Bien bitartean, AEB, Britainia Handia eta Estatu frantziarreko gobernuak ez dute aukerarik galdu beren buruak munduaren aurrean "demokraziaren" eta "eskubide demokratikoen" defendatzailatzat aurkezteko, ustez "errusiar inbasioaren" aurrean; errealitatea bestelakoa da, ordea; herritar zibilen aurkako ofentsiba militar basatia sustatzen dute eta banda faxistak armatzen dituzte.

ARKAITZ APARICIO

Abuztuaren erdialdera, Kieveko gobernuak Slaviansk eta beste hiri batzuk okupatu zituen, eta bazirudien abuztuaren 24ko desfile militarrean (Ukrainako independentziaren eguna da) garaipen handi bat ospatuko zuela, Donbas guztia kontrolatuz. Hala ere, goizetik gaue-ra, egoera guztiz aldatu zen: ekialdeko herri milizia antifaxistak erasora pasatu ziren fronte guztietan eta gobernuak okupaturiko lurraldeak birkonkistatu zituzten. Miliziek erabilitako taktika militarra honakoa izan zen: ejertzito ukrainiarri pasatzen utzi zien, ondoren setiatzeko; horrela milaka soldadu harrapatuta gelditu ziren Errusiako mugaren eta haien artean, janari gutxirekin eta hornitzeko aukerarik gabe. Milizien hurrengo helburua Mariupol (portua duen hiria) izan zen; bertan Azov batailoi ankerak, "Eskuin Sektoreko" faxistek osatutakoak, herritarren izua eragin zuen.

Porrot lotsagarri honen ostean, Ukrainako gobernuak, AEB

eta EBren babesarekin, sekulako propaganda mediatikoa antolatu zuen: ustezko inbasio bat salatu eta Errusia munduko bakearentzat mehatxu bezala aurkeztu zuen, honen inongo probarik eduki ez arren. Milizia errebeldeak Errusiaren laguntza jasotzen ari direla egia da, baina hau ezin konpara daiteke Kieveko gobernuak jasotako armamentu astun, tanke, hegazkin eta mertzenarioekin eta NATO eta CIAk emandako babesarekin. Donetskoko Herri Errepublikako lehen ministroak, Zajarjenchok, publikoki onartu zuen beraien milizietan 3.000-4.000 borrokalari errusiar daudela, hauetako asko goi



karguko militar ofizial ohiak, eta beren borondatez elkartuak.

Ejertzito ukrainiarrak atzera egin behar izana ez da milizien arrakasta militarrengatik soilik izan, hau baino faktore garrantzitsuagoak badaude. Ejertzitoaren egoera, azken batean, bera ordezkatzeko duen herrialdearen adierazgarri da, eta bertako kontraesan eta egoera ezberdinak agerian geratu ohi dira. Ukrainaren kasuan, ejertzittoa zati-tua dago eta tropak desmoralizatuta daude. Gobernuak onartu duenez, desertzioen ondorioz 1.000 prozesu judizial baino gehiago jarri ditu abian. Ehunka soldaduk Errusiara ihes egin dute eta beste asko milizietara batu dira. Gainera, ejertzitoko kide askok ez dituzte gerraren arrazoiak onartzen. Boluntarioak ejertzitotara sartzeko egindako kanpainaren porrotaren ondoren, talde faxistetako kideak soilik erakartzea lortu baitu, gobernuak formakuntza militarrik gabeko gazteak derrigorez erreklutatzea beste aukerarik ez du izan.

NATO-REN ETA INPERIALISMOAREN ASMOAK

AEB eta EB Ukrainako krisia baliatzen ari dira Europa militarizatzeke. Iraileko lehen asteburuan

Galesen ospatu zuten bilkuran milaka soldaduz osatutako esku hartze azkarreko bi indar sortzea eta Baltikoko estatuetan, Polonian eta Errumanian base militarrik ezartzea adostu zuten. Ukrainako krisia eta Errusia aitzakia hutsa dira. Mendebaldeko potentzien helburua Errusiak oraindik mantentzen duen eragin eremutik baztertzea eta Europako leherketa sozialak kontrolatzea dira. Izan ere, langabezia masibo-

rekin, pobreziazko soldatekin, ongizate gizartearen gainbeherarekin eta murrizketa basatiekin, harreman sozialak lehertzeko zorian daude. Burgesiak indar militarra baliatzeak arrazoi argi bat du: geroz eta nabarmenagoa den iraultza soziala saihestea. Baina horrek beren indarra erakutsi ordez, beren ahultasuna islatzen du. Afganistan, Irak, Siria eta orain Ukrainan bizi diren egoerak begiratu besterik ez dago beraien helburuak betetzen ez direla ikusteko.

Espero zitekeen moduan, Putin eta Errusiako oligarkia ez ziren gelditu AEB eta EBren isolatze saiakerari erantzun bat eman gabe, kontuan izanik euren helburu ekonomiko eta estrategikoak jokoan zeudela. Gainera, Errusiak Donets eta Luhansk alde batera utzi izan balitu, Putinen irudia kaltetuko zitzaitekeen. Errusiako ekonomia atzeraldian dago eta, mendebaldeko gainontzeko gobernuen antzera, herstura neurriak aplikatzen ari da. Horregatik, garbi eduki behar dugu Putinen laguntzak ez duela zerikusirik Ukrainako ekialdeko herritarren egoera hobetu nahiarekin edo beren eskubide demokratikoak defendatzearekin. Ukrainako ekialdeko altxamendua baliatzen ari da Errusiako oligarkiak herrialde hartan dituen interesak babestu eta mendebaldeko potentzia inperialistekin negoziatzeko.

UKRAINAKO MENDEBALDEKO HERRITARRAK GERRAREN AURKA

Ukrainako gobernuak duen beste arazoetako bat herrialdearen mendebaldeko eta hegoaldeko herritarrek esku hartze militarrekiko duten kontrako jarrera da. Uztailaren 22an onarturiko dekretuak 18 eta 25 urte bitarteko gazteak ejertzitorea joatea derrigortzen zituen. Honek estatu guztian gerraren aurkako mobilizazioak piztu zituen. Soldaduen ama, emazte eta senideek bi kexa nagusi zituzten: batetik, ejertzitoean parte hartzea derrigortzea eta, bestetik, derrigortze hau langileen semei bakarrik aplikatzea eta abe-



ratsen semeak gerratik libratzea. Hainbat egunetan, hiri eta herri nagusietan, baita Kiev hiriburuan ere, manifestazioak antolatu zituzten, errepide, trenbide eta portuak blokeatuz eta gobernu eraikinen parean kontzentrazioak eginez. Ehunka gaztek, erreklutatze aginduak erre zizuten eta toki askotan erreklutatze bulegoei eraso egin zieten. Egun batzuk beranduago, gobernuak zerga berri bat iragarri zuen: soldaten %1,5 gerra kostuak finantzatzeko erabiltzea inposatu zuen. Honek dagoeneko haserre zeuden herritarrak gehiago haserretzea eragin zuen.

Ukrainako gobernu ahal duen guztia egiten ari da gerraren aurkako oposizioa isilarazteko eta parlamentuan gerraren aurka zerbait esaten zuten diputatuak bertatik kanporatuak edo faxistek kolpatuak ere izan dira. Honetaz gain, alderdi komunista legez kanporatzeko prozedura judiziala martxan jarri dute, errusieraz ziren egunkariak itxi dituzte eta ezkerreko ekintzaile eta pazifista askok ihes egin behar izan dute. Askok, beren ekintza politikorekin jarraitzeko klandestinitatera pasatu behar izan dute.

EKONOMIA "GAINBEHERA BIZIAN"

Gerraren aurretik Ukrainako egoera ekonomikoa txarra zen, eta orain gainbehera bizian dago. Ekonomiaren adierazle guztiak hondoratu dira; adibidez, produkzio industriala

%12 jaitsi zen abuztuan eta nekazal ekoizpena %15. Egoera okertzen ari da gainera, izan ere, Donets eta Luhansk inguruek Ukrainako BPGren %16 ekoizten baitute, eta esku hartze militarren ondorioz industria eta azpiegitura asko hondaturik geratu dira edo hauek beren aktibitatea bertan behera utzi behar izan dute. NDFren esanetan, ekonomia ukraniarrek %6 eta %7 bitarteko atzerakada edukiko du aurtan. Gainera, gasa ekoizten duen Errusiako Gazprom enpresak Ukrainari gasa saltzeari utzi dio Ukrainako gobernuak 5.000 milioietako zorra baitu beraiekin. Horren ondorioz, Kiev eta beste hainbat hirietan ur berorik gabe daude, eta egoera benetan kezkarria da negua gerturatzen ari dela kontuan hartzen badugu, milaka pertsona berogailurik gabe geratuko baitira.

Historian hainbat aldiz ikusi dugu gerra bere alderantzizkoan bilakatu dela eta hainbat herrialde iraultzara eraman dituela. Ukrainako oligarkia eta honen nagusi den inperialismoak benetako izua dio chauvinismoaren pozoia desagertu eta arazo sozialak azaleratzeari, horrela gerraren aurkako oposizioa gobernuaren aurkako altxamendu bilaka bailiteke. Azken batean, ekialdeko altxamendua herrialde guztira zabaltzeari izua diote. Ukrainako egoeran aldagai asko daude eta ezin da ezer aurreikusi, baina gauza bat argi dago: kapitalismopean ez da inolako irtenbiderik egongo Ukrainako herritarren arazoak konpontzeko.

Katalunia: Pujol kasua, klase arteko borroka eta arazo nazionala

Uda honetan agertu da albistea. Jordi Pujol Soley 23 urtez Generalitateko presidente izan zenak Andorrako paradisu fiskalean 30 urtez dirutza ikaragarria ezkutatu zuela onartu zuen. Nahiz eta President ohiak dirutza horren jatorria familia herentzia batena zela esan, pixkana, hori gezurtatzen joan zen eta argitara irten ziren Pujol, bere familia eta gertukoak eta CiU inguratzen zituzten hainbat eta hainbat ustelkeria kasu.

Azpimarratu behar da milioietako iruzur fiskal hori ongi ezagutzen zuela burgesia espainiarrak, PPK eta PSOEK, bi alderdiak ere adituak baitira azpijoko hauetan (ikusi PPren buruzagien dirutzak, Barcenak kasua, Felipe Gonzalezen dirutza edota PSOEko ministro ohien papera multinazional handien administrazio kontseiluetan). Pujolek eta CiUk Estatu espainiarraren gobernantzaren alde eta klase dominatzaileko kolektiboen interesen defentsan eginiko lan politikoaren truke, bere negozio ilegalak isilarazi eta estatu sekretu balira bezala gorde ziren. Ez zuen kasualitatez Jordi Pujol bera urteko es-

painiar gisa izendatu 1986 urtean ABC egunkariak. Orain, burgesia espainiarrak eta estatu aparatua, horiek ere egiturazkoa den ustelkeria honetan inplikaturik egonik, karta hau jokatzea erabaki dute: erreferendumaren auziari buruz, aurrekontuen banaketari eta beste hainbat gairi buruz isilpean mantentzen ari diren negoziazioan CiU "apaltzeko" Pujol kasua erabiltzea .

USTELKERIAREN TRADIZIOA PUJOL FAMILIAN, ETA GAINERAKO KLASA DOMINATZAILEAN

Adibide on bat Banca Catalanarena da; Jordi Pujolek eta bere aitak

sortu zuten eta sekulako ustelkeria zuloa izan zen. Azkenik, entitateak porrot egin zuen eta Estatu espainiarrak erreskatatu behar izan zuen diru publikoarekin 300.000 milioi pezetako injekzio baten bitartez. Hori bai, zuzendaritzakoek, horien artean Pujol familiak, lortu zuten beren higagarriak salbatzea. Kalkulatzen da Pujolen Andorrako dirutik 1.200 milioi pezeta (7 milioi euro) eskandalu finantziario honetatik datozeela. Une horretan auziko fiskala zen Jimenez Villarejok Pujolen inputazioa eskatu zuen, baina azkenik Bartzelonako Audentziak atzera bota zuen eta ez zuen inor epaitu, ezta kondenatu ere, iruzurrezko hondoratze honengatik. Azken batean, Bankiarekin eta gainontzeko finantza entitateekin egungo krisian gertatu den bezala, ez dago ezberdintasunik.

Hala ere, hori ez zen izan Pujol familiaren lehen abentura finantzarioa. President ohiaren aitak, Florenci Pujolek, bere dirutzak dibisekin trafikatu egin zituen dikadura frankista garaian eta 1959an Suitzan kontuak zituzten zerga saihesleen zerrenda batean sartzeraino iritsi zen. Zerrenda horretan zeuden, Pujolen izenaren alboan, Botin, Ybarra, Villalonga, Oriol eta burgesia kataluniarreko, euskal herritarreko zein espainiarreko beste hainbat familia handi, erregimen frankistako buruzagi izanik kapitalista handi bihurtu zirenekin batera. Nahiz eta garai hartako 400 milioi dolar atera ziren (Estatuaren kanpo erreserbak 45 milioi ziren), informazio azaleratze hau erregimen frankistaren aurpegi garbitze iragarri bat besterik ez zen; bertan ageri ziren





guztiak beren negoziorekin jarraitu zuten 10.000 pezetako isun lotsagarriak ordaindu ostean. Egia esan, praktikan 1959ko zerrenda horretan agertzen ziren berberak dira egun Katalunian eta Estatu espainiarrean botere ekonomikoa eta politikoa maneiatzen dutenak. Ez da kasualitatea oroimen historikoa lurpetik atera nahi ez izatea. Pujol auziak aurrera jarraitu du, gainera, honen seme-alabekin. Oriol, CDCko idazkari orokor ohia, egun inputaturik dago ITVen kasuagatik. Sekulako negoziorekin egin zituen Parlamentean zuen posiziotik, multinazionalen CATALUNYAN geratzeagatik diru laguntzak eman eta opariak eginez; bitartean bere emazteak multinazional horiek (Sharp, Yamaha eta Sony) nola deslokalizatu aholkatzaren gertuko lagun baten enpresan lan egiten zuenean. Bestalde, Jordi Pujol Ferrusola, oinordekoa zena, UDEEFen arabera 32,9 milioi euro biltzera iritsi zen, eta egun inputaturik dago dirua zuri-tzeagatik eta delitu fiskalagatik. Zerrendak jarraitu egiten du, baina ez Pujol familiarekin bakarrik, baita elite ekonomiko eta enpresari gorenekin ere, eta ez soilik Kataluniakoekin. Azken batean, Barcenak kasua edo Pujol kasua txanpon beraren bi aurpegi dira, Trantsizioaren ondoren heredaturiko boteretsuen sarearen ondorio,

non betikoek jarraitzen duten agintzen eta negoziorekin egiten.

A9KO GALDEKETA: PP-REN JARRERA ERREAKZIONARIOA ETA CIUREN MANIOBREN ZINISMOA

Galdeketa dagokionez, espero bezala PPren gobernuak galdeketa aurka egin du. PPk eta estatu aparatuek beste behin beren benetako aurpegia erakusten dute: erregimen frankistaren oinordekoak dira eta nazio zapalduen eskubide demokratikoak ukatzen dituzte. Badakigu PPk hainbeste errepikatzen duen legezkotasuna neurritan eginda dagoela, bere neurritan alegia, orain lan erreforma bezala.

CiUk bere aldetik ibilbidea “azkenera arte” jarraituko duen itxura egiten saiatu da. Abuztuaren 11n, Joana Ortega Goberneko lehendakariordeak argi eta garbi esan zuen kontsulta atzeratu egingo zela Auzitegi Nazionalak azaroaren 9koa legez kanporatzen bazuen. Hauxe esan zuen: “Nik azaroaren 9 horren alde lan egiten dut; eta ezin bada, beste azaroaren 9 bat egongo da”. Joana Ortégak ERCri ere ohartarazi zion gobernuko alderdia izan nahi bazuen ezin ziola legeak betetzeari utzi. Santi Villa Territori i Soste-

nibilitateko consellerrak oso argi esan zuen TV3ko elkarrizketa batean: “Zuzenbide estatu batean oso garrantzitsua da mundu guztia, logikoki oinarrizko hiritarretatik hasita bere Gobernura arte, beti kontuz ibiltzea, guztiok babesten gaituen legearekin errespetuz jokatzu”.

AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA ETA SOZIALISMOAREN ALDEKO BORROKA

Begi bistakoa da hasiera batetik, CiUk galdeketa “deialdia ezeztatzearen” kasuan ez zuela B plan bat bakarrik, eta bazituela C, D eta E planak ere. Gehien “filtratu” dena datozen hauteskunde autonomikoei izaera plebisitari bat ematearena izan da; horrela legealdia 2016ra arte amaitzen saiatuko litzateke, osasungintza, hezkuntza eta zerbitzu publikoen deuseztatze lanak osatzeko.

Zein izan behar du Katalunian benetako aldaketa sakon bat nahi duen ezkerreko lehentasuna? CiUren maniobra tamalgarriak, bere traizioa eta ustelkerian duen eskandaluzko inplikazio hori guztia erabili behar dira, behingoz, Generalitatetik kanporatzeko; eskuina, bai kataluniarra bai espainiarra, garaitu behar da hauteskundeetan nahiz kalean, eta baita honen babesle den sozialdemokrazia ere. Autodeterminazio eskubidea gizartearen eraldaketa sozialistaren programari loturik duen benetako ezkerreko programa eduki eta hau modurik hoberean praktikara eramango duen ezkerreko Generalitat baten alde borrokatu behar da. Leninen liburuak abiapuntu sendo eta funtsezko eskaintzen du arazo nazionalari modu kontsekuenteke iraultzaile batean heltzeko egun Euskal Herriari, baita Catalunyan, Galizian eta orokorrean Estatu espainiarrean nahiz mundu mailan ere. Egia esan, pasarte askok egungo egoeraren pentsatuz idatziak dirudite.

Gora Palestinaren aldeko borroka! Gora erresistentzia!

ARTIKULU HAU KONTRAPORTADAN HASTEN DA 4 eta 6 ordu bitartean goza dezake- ten luxua da). Nazioarteko lagun- tza behar duten pertsona kopurua 2000. urtean, hau da, blokeoaren aurretik, 80.000koa zen, azken ge- rraren aurretik 830.000koa eta orain 1.100.000koa, biztanleriaren %60a. Laburbilduz, Israelen sarras- kiaren eraginak urte asko iraungo du. NBEaren arabera, 8.000 milioi euro beharko dira “errepideak, etxeak, zubiak eta beste azpiegitu- rak” konpontzeko bakarrik; eta Gazak duen urteko aurrekontua 60 milioikoa da!

Bestalde, Israelen barnean ber- tako agintarien aurkako adierazpe- nak ugari izan ziren: milaka pertso- na bildu zituzten manifestazioak (hauek erasotzen zituzten banda faxistek inpunitatea izan arren), ikasleen eta erreserbisten gutun publikoak gerran parte hartzea ukatzen, erreserbista batzuk ez zi- ren egokitzen zitzaizen lekuetara azaldu... Palestinar erresistentzia- ren tinkotasuna, Zisjordanian Inti- fada piztearen arriskuak (bertan manifestazioek jasandako errepre- sio militarrek 33 hildako eragin zi- tuen), Israelgo palestinarren mobi-

batuarrak eta potentzia europa- rrek esku hartzea lehenbailehen amaitu nahi izateko. Era berean, pisu handia izan du Ekialde Hur- bilean egoera are ezegonkorragoa bilakatzeko zegoen aukerak, kon- tuan izanda Siria eta Irakeko ga- tazkak areagotzen ari direla eta NATO garrantzia handiko beste gatazka militar batean sartuta da- goela Ukrainan.

SIONISMOA AHULAGO GERRAREN ETA AKORDIOAREN ONDOREN

Netanyahuk hasieran zituen as- moen kontrara, akordioak ez du lortu palestinarrak miliziek armak utz ditzaten; aitzitik, paperean be- hinik behin, blokeoa gutxitzea onartu da Israeldik osasun eta eraikuntza materialak sartzeko (orain arte hau tabua zen sionis- moarentzat) eta Egiptorantz dar- man Rafahko pasabidea ireki dute. Mugen erabateko irekiera iraila- ren amaieran hastekoak ziren ne- goziaketarako utzi zituzten. Bes- talde, Gazako arrantzaleek orain arte hiru miliara arte arrantza ba- zezaketen ere (hasiera batean ho- gei ziren), orain sei miliara arte egin dezakete; arrantza da eskual- deko alor ekonomiko nagusia. Ha- laber, beste hainbat auzi garran- tzitsuren negoziaketa planteatu da: Israelek bonbardaketekin suntsitutako aireportua eta portua berreraikitzea, preso politiko pa- lestinarren askatasuna eta 2013 amaieratik kobratu gabe dauden funtzionarioen soldatak ordaintze- ko funtsa desblokeatzea.

Egia da akordio hau partxe bat besterik ez dela, eta ez dituela Ga- zako herritarrek dituzten oinarriz- ko beharrak asetzen (zer esanik ez askapen nazionalari eta sozialari dagokionez). Nolanahi ere, palesti- nar mugimenduarentzat oso posi- tiboa den alderdi bat badu, eta ha-



SU-ETENA EKARRI ZUTEN NEGOZIAKETAK

Abuztuaren 26an su-eten iraun- korra hitzartu zuten. Netanyahu- ren hasierako helburua bonbarda- ketak xantaia bezala erabiltzea zen mugimendu palestinarra be- hin betiko menderatzeko: miliziak desarmatzea eskatzen zuen, bes- tela esanda, baldintzarik gabeko amore ematea. Hala ere, denbora ejertzito israeldarraren kontra ze- goen, eta inoiz baino garestiago ordaindu du: 66 baja ofizial (%40 gehiago agian), 2008ko 23 egune- ko operazioan izandako 11aren al- dean (orduan ere Gaza inbaditu zuten).

lizazioek (greba orokorra barne) eta judutarren haserrea areagotze- ak, honek guztiak, arriskutsuago egiten zuen esku hartze militarra- rekin jarraitzea su-etena sinatzea baino. Hain zuzen ere, tropa sionis- tek Gazatik ihes egin behar izan zuten bertan egotea oso garestia zelako; su-etenen sinaduraren unean, soldadu guztiak mugaren atzean kokatuta zeuden.

Sionistek atzera egin izanaren beste arrazoia masakre honen aur- kako mobilizazioak izan dira; mundu osoan milaka izan baitira, baita AEBetan ere. Beste behin, masen borrokak eragin handia izan du, bereziki, gobernu sionista babestu duten inperialismo estatu-

la ikusi du herritarren %80ak: suntsipen eta heriotzek ez dute lortu herri palestinarra menderatzea. Netanyahu berak akordioa sinatu eta bi egunetara egin zuen beren lehen agerraldi publikoa. Haaretz israeldar egunkariak " Hamas 1, Israel 0" izenburua erabili zuen eta telebistako bigarren kateak Netanyahuaren amaiera politikoaz hitz egin zuen

AL FATAH ETA HAMASEKO AGINTARIEN PAPER

Netanyahuk, Obamak eta Egiptoko kolpistek babestuta, taktikaz aldatu nahi du Mahmud Abas eta Al Fatahko zuzendaritza presionatuz, hau otzanagoa baita. Hain zuzen ere, Rafahko pasabidea irekitzeagatik inposatutako baldintzetako bat Zisjordaniako mugako kontrola palestinar gobernuaren eskuetara pasatzea izan da. Bestela esanda, ez dadila Hamas bakarrik izan zer pasatzen den eta zer ez den pasatzen kontrolatzen duena, eta Al Fatah ere kontrola dezala.

Hamas politikoki indarturik atera da gerra honetatik. Aurretik, galdeketen arabera Al Fatah %53-41 zegoen Hamasen gaineratik. Orain egoera irauli da: palestinarren %61ak Hamas bozkatu luke eta %32ak Al Fatah. Ez hori bakarrik. %72k Zisjordaniara zabaldu nahi du Gazan egindako borroka armatua. Honek erakusten du Zisjordanian bizi duten israeldar kontrol militar itogarriak, kolonien hedatzeak, honek eragindako zatiketak, lotsaren harresiak eta itxaropen faltak sortzen duen haserre soziala.

Israelen erasoan aurkako erresistentziari esker Gazako herritarrek Hamasi eman dioten babesak ez da baldintzarik gabekoa. Hain zuzen ere, azken zazpi urteetako gobernu islamistaren ezaugarri nagusiak ustelkeria, errepresioa, pobrezia eta programa sozial integrista eta atzerakoia inposatu nahia izan dira. Gazako palestinarren %68ak uste du gobernuan ustelkeria dagoela, herritarren %25ak bakarrik uste du Hamas publikoki



kritikatzeko askatasuna dagoela, langabezia %40koa da, muturreko pobrezia %21ekoa, nahiz eta arduradun nagusia Israelek eta Egiptok inposatutako blokeo kriminala izan. Programa islamista inposatuz, emakumeek ez dute eskubiderik zenbait lanpostu lortzeko; integristen biktima nagusiak eurak dira. Ekainean Fathi Hammad Barne Ministroak lege islamista aplikatuko zuela baieztatu zuen eta halaxe zioen: "ez da bakerik egongo sekularismoarekin". Hamasen polizia arau zentzugabeak betetzeaz arduratzen da; besteak beste, gazteek ez dezatela mendebalekotzat har daitekeen orrazkerarik edo estetkarik eraman.

Errealitatean, Israelen aurkako herri erresistentziarako deia egiteaz eta Israelen hondakinen gainean estatu palestinar islamikoa eraikitzeko amets utopiko eta atzerakoiaz haratago, askapen nazionalerako zer nolako alternatiba du Hamasek? Bere gain hartu ditu Israelen aurka jaurtikitako kohete eta misilak; inoiz baino urrunago iritsi dira eta Tel Aviveko aireportua itxi behar izan zuten. Baina, metodo honek borrokan paper positiborik jokatu al du? Garaipen partziala ekarri duena kaleko erresistentzia izan da, lurraldea tinko defendatzea etsaiaren eremuan dagoen ejertzitoaren aurka eta, jakina, herritarren borondatea drama guztia-

ren gaineratik. Noski, herri palestinarren borroka autodefentsakoa da, 1948an sortu zen estatu israeldarrak bereziki Zisjordania eta Gaza okupatu zituenetik aurrera daraman zapalkuntza nazional basatiaren aurkako erreakzioa. Beraz, edozein ekintzailerentzat beharrezkoa da babeska eskaintzea eta sionisten eta inperialisten muturreko hipokresia salatzea. Terrorismoaz, fanatismoaz eta antzekoez hitz egiten duten berberak dira Palestina eta munduko beste hainbat eta hainbat herri zapaltzen dituztenak, gizateriaren gehiengoa eta langile klasea zapaltzen dituztenak.

MASA BORROKA ETA PROGRAMA IRAULTZAILEA

Palestinako borrokaren historia aberatsa da gertakarietan eta ikasgaietan. Lehenengo Intifadak, 1987koak, hau da, lurralde okupatuetako palestinarren altxamen- duak nazioarteko eta Israel barruko babeska jaso zuen eta ondorioz sionismoa ahuldu zen. Ordura arteko ekintza armatu isolatuak, herrikoak izan arren, estatu sionistak berehala neutralizatzen zituen eta horiek lortu ez zutena lortu zuten Intifadak. Talde txikiek ezer gutxi dute egiteko arlo militarrean estatu kapitalistaren aurka, are gutxiago ondo armatutako eta in-

HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

ARTIKULU HAU AURREKO ORRIALDEAN HASTEN DA perialismoak babestutako eskualdeko potentzia baten aurka. Masen borroka, enfrontamendu armatua konfrontazio politikoarekin konbinaturik eta programa egoki batekin, mila bider indartsuagoa da. Tamalez, Al Fatahko zuzendaritza ezustekoan harrapatu zuen Intifadak, eta honetan oinarritu eta indarra eman beharrean inperialismoarekin negoziatzearen alde egin zuen. Sei urteren buruan Osloko Akordioetara iritsi ziren eta honek eragindako dezeptioak ekarri zuen Intifadan sortutako Hamasen garapen indartsua.

Palestina sozialistaren aldeko borroka, Ekialde Hurbil eta mundu sozialista baten aldeko borroka-rekin uztarturik, bete betean mehatxatuko lituzke israeldar klase agintariaren interesak. Hau izan da sionismoaren bandera altxatu duena Israelen duen klaseko domeinua mantentzeko eta, noski, eskualdeko dominazio inperialistarekin jarraitzeko. Palestina islamiakoaren aldeko aldarriak, non judutarrek luketen irteera bakarria erbestea eta gutxiengo zapaldua izatea litzatekeen, ez du balio sionismoa sozialki bakantzeko. Aitzitik, honek bere burua musulman fanatikoen aurka judutarren biziraupea bermatzen duen defendatzaile faltsutzat aurkezteko aukera ematen dio sionismoari. Klase agintari sionista eta burgesia arabiarra (hau ere inperialismo estatubatuarren eta sionismoaren konplizea da eta erakutsi du historikoki herri arabiarren garapen nazional eta sozialerako traba dela) garaitzeko beharrezkoa da programa sozialistaren defentsa: baliabideen nazionalizazioa hauek gizartearen beharren zerbitzura jartzeko. Honi esker gizartearen gehiengoari, langileei, nekazariari eta beste sektoreei, hauek arabiarrek, judutarrek edo kurduak izan, aukera emango liekete bakean beren kultur ohiturekin bizitzeko eta nazionalki garatzeko. Eta, beraz, Israelgo langile judutarren zati handi batek ere bere egingo lukeen programa da.



Klase arteko borroka Israelen ere existitzen da, beste edozein herrialdetan bezala. Herri bezala bakean garatzeko aukera ematen zion estatu propio bat sortzeak hasiera batean piztutako itxaropena amets gaizto bilakatu da, eta ezin bestela izan. 66 urtetan, Israelgo klase agintariak gerrak, barne tentsioak, gizartearen militarizazioa eta aurrekontu militarren pisua duen garapen ekonomikoa eskaini ditu. Orain guzti honi, mundu mailako kapitalismoaren krisia gehitu behar zaio. Mubaraken aurkako borroka, M15 mugimenduaren eta Occupy Wall Street mugimenduaren berotasunean piztutako Haserretuen mobilizazioak judutarrek eta arabiarrek elkartu zituen etxebizitza merkeagoen, osasungintzako hobekuntzen, hezkuntza publikoaren eta beste hainbat aldarrikapenen alde. Herritarren sektore handi bat agintari sionistez nazkatu dago, baina alternatiba sozialistarikezean, zaila da haserrea modu antolatuan adieraztea.

Sionismoa zenbat eta ahulagoa izan, orduan eta indartsuagoa da Palestinaren kausa. Eta estatu sionistak zenbat eta oinarri sozial gutxiago izan, orduan eta ahulagoa da. Sionismoa bakartzea, langile judutarrek erakartzea, nahitaezko betebeharra da mugimendu palestinarrentzat. Hori dela eta, israeldarren aurkako metodo in-

diskriminatuek (esaterako, Gazatik jaurtiketakoa koheteek hainbat zibil hil dituzte, tartean palestinar bat eta langile etorkin bat) lortu nahi den helburuaren kontra egiten dute. Adibidez, hiru gazte judutar zibil hil zituen ekintza (Hamaseko komandante batek bere gain hartu zuena) krimen sektario bat izan zen eta ikusi den bezala gobernu israeldarrari bakarrik egin zion mesede, honen ondorioz errazago izan baitzitzaion iritzi publikoa manipulatzeko, chauvinismoa sustatzeko eta bonbardaketekin jarraitzeko.

Palestinaren herri erresistentzia ikaragarria, drama eta suntsiketaren gaintik erakutsi duten gaitasuna, Hamas eta beste agintari askoren politikaz gain gertatu da, ez hauei esker. Autodefentsa armatuarekin batera, programa sozialista, laiko eta internazionalistan oinarriturik, masa palestinarren erresistentziak eragin askoz ere handiagoa izango luke Israelen eta herrialde arabiarretan. Zonaldeko baliabide garrantzitsuenak desjabetzea eta kontrol demokratikopean jartzea oinarriko beharra da palestinarren garapen ekonomikorako, ongizate sozialerako eta askapen nazionalerako. Erabat utopikoa da Ekialde Hurbil kapitalista batean eskubide nazionalak eta sozialak bermatuta izango lituzkeen estatu palestinarra sortzea.

Hezkuntza publiko eta euskaldunaren aldeko borroka!

LOMCEren aurkako borroka aurrera jarraitzen du. Lege klasista, españolista eta frankista hau atzera botatzeko beharrezkoa da mobilizazio eraginkor eta bateratuak antolatzea, eta oinarrizkoa da, noski, borroka jarraipena izatea eraso atzera bota arte. Azken bi urteetan antolatu diren ikasle greben ondoren, hau da Euskal Herria Sozialistak urriaren 21, 22 eta 23ko ikasle grebari buruz ateratako eskuorria.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA eta IKASLE SINDIKATUA ekintza batasunean

Urriaren 21, 22 eta 23an
denok ikasle greba orokorrera!

LOMCEri ez!

**Unibertsitatearen, Batxilergoaren eta LHren pribatizazioari ez!
Kalitatezko hezkuntza publikoa, laikoa, doakoa eta euskalduna!**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Azken bi urte hauetan unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako ikasleak borrokan aritu gara irakaskuntzako kontrarreforma frankistaren (LOMCE), unibertsitatearen pribatizazioaren eta hezkuntza publikoko murrizketen aurka. Ikasle mobilizazio handi honek asko ahuldu du Wert ministroa, posible eginez LOMCE bere osotasunean aplikatzera ez heltzea edo bertan behera geratzea. Borroka erakutsi du bera dela bide bakarra hezkuntza publikoaren lapurreta saihesteko. Adibidez, Marea Txuriaren mobilizazioa izan da Madrilen osasun publikoaren pribatizazioa geratzea lortu duena, borroka izan da Gamonaleko bizilagunei garaipena eman diena, edo Gallardonon abortuaren lege atzerakoa porrotera eram duena.

Hala ere, Wertek argi dauka irakaskuntza publikoa suntsitzen jarraitu behar duela eskubide hau pribilegio batean bihurtu arte, Batxilergoan eta goi mailako

Lanbide Heziketan tasak inposatuz, beka murriztuz eta tasa unibertsitarioen kostua %66 garestituz. Gainera, unibertsitatean gaur egungo beka sistemarekin amaitu nahi dute hauek banku maileguekin ordezkatzeko; graduak 3 urtera murriztu, titulu hau erabat devaluatuz eta ikasleak master bat (urte 1etik 2ra igaroko dena) egitera behartuz ikasketak unibertsitarioak osatzeko. Baina 4.000 edo 7.000 euroko gaur egungo prezioekin, gutxiengo pribilegiatu batek bakarrik izango du ordaintzeko aukera.

Basakeria hauei EAJ eta UPN egiten ari diren murrizketak gehitu behar zaizkie: azpiegiturretan, ikastetxeen aurrekontuetan, plantiletan, ordezkapenetan, soldatetan... Unibertsitateari dagokionez, Iñaki Goirizelaia EHUKo errektoreak unibertsitateen fusioa iragarri du. Honek hau suposatuko du: EAEn dauden 31 fakultatetik 11 ixtea, irakaslearen eta bestelako langileen kalteratzea, fakultateen masifikazioa, hezkuntza kalitatearen okertzea eta, epe motzera, ikasle gutxiago

dituzten karreraren suntsiketa, kontutan hartu gabe sozialki beharrezkoak diren ala ez.

Eskuin guztiak, bakoitzak bere demagogia propioa erabiltzen jarraitu arren, oso garbi du hezkuntzaren elitizazioa dela helburua. Langileen seme-alabok ezin dugu hau onartu, hezkuntza publikoa baitugu aukera bakarra ikasi ahal izateko eta etorkizunean lanpostu kualifikatuago bat eskuratzeko. Horregatik, ikasle borroka ez da amaitu, juxtu kontrakoa, indartu egin behar da.

Arrazoi honengatik, Euskal Herria Sozialista eta Ikasle Sindikatua elkartu egin gara ekintza batasunean urriaren 21, 22 eta 23ko ikasle greba orokorra deitzeko. Eta dei egiten diegu ikasle eta gazte erakundeei, bereziki Ikasle Abertzaleak, eta LAB, ELA, STEE-EILAS, CCOO eta UGTri, eta Euskal Herriko Ikasle Gurasoen Elkarteari (EHIGE) urriaren 23an Euskal Herrian Hezkuntza Komunitate osoaren Greba Orokorra deitzera eta hezkuntza publikoaren aurkako murrizketa basatiak denon artean geratzera.

**Gora Palestinaren aldeko borroka!
Gora erresistentzia!
Inperialismoa kanpora!
Programa iraultzaile antikapitalista!
Palestina sozialista, Ekialde Hurbil
eta mundu sozialista batean!**

Uda honetan, Ekialde Hurbileko indartsuena den Tsahal ejertzito israeldarraren indar suntsitzaile guztiak eta komunikabideek, lobbiek, sionismoak ordaindutako politikariek eta mundu osoko aliatuek bat egin dute herri palestinarraren erresistentzia menderatzeko edo, behintzat, ahultzeko. 50 egunetan, marina, hegazkineria, artilleria eta infanteria sionistak Gaza suntsitu dute, erabat menperatu nahian. Nolanahi ere, masakre ankerra eragin arren, beren helburuak urrun geratu dira.



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ejertzito israeldarrak hildako palestinarrak 2.138 izan dira, %70 zibilak eta 484 umeak. Zaurituak hamar mila baino gehiago izan dira, eta hauetarik mila ahalmen urritasunen bat pairatzen duten umeak dira. 400.000 adin txikikok laguntza psikologikoa behar dute!!

Zifra basati hauei gehitu behar zaizkie etxebizitzak, fabrikak, baratzak, eskolen, ospitaleen eta bestelako azpiegituren suntsitze masiboak. 17.000 etxebizitza erabat suntsituta daude eta 38.000 oso egoera txarrean. Barne errefuxiatuak milioi erdi palestinarrak dira eta 300.000 egoera txarrean bizi dira UNRWA errefuxiatuentzako NBE-

en erakundeak dituen eskoletan. 216 ikastetxe, osorik edo zatika, erorita daude, baita 58 ospitale edo osasun zentro ere; ehun sendagai inguru falta dira; herritarren %90ek ez du ur edangarririk; zentral elektriko bakarrak bonbardaketa jasan zuen eta urte bete behar izango dute konpontzeko (argindarra egunero

12. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun lezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

**JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net**

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun lezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista